

Osteguna, 2011ko urriak 13 - 11:06

Plaza

[Hasiera](#) [BerriaTB](#) [Parte Hartu](#) [Blogak](#) [Bereziak](#) [Kanalak](#) [Zuzenekoak](#)  [Harian](#) | [Irit](#)[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2011-10-13

ASTEBURUKO PROPOSAMENAK

Lehen sagar zukuez gozatzeko

Hendaia. Sagar erakusketa, sagardo dastatzea eta bazkaria egingo dituzte igandeko Sagardo Festan

NAGORE RODRIGUEZ

Irailetik azarora bitartean, sagarra biltzeko garaia da, eta horregatik hainbat herritan festak antolatzen dituzte garai horretan fruituaren bueltan. Igande honetan Hendaia (Lapurdi) txanda izango da, Sagarraren Festa egingo dute goizean hasi eta arratsaldera bitartean (09:30etik 17:00etara).

Ekitaldiak Gaztelu Zahar pilotalekuan izango dira, baina euria eginez gero Merkatu Zaharrera eramango dute festa.



Abadia eremuko sagarrekin egingo dute sagardoa igandean. / ENEKO BIDEGAIN

Sagar mota ezberdinak ezagutu eta sagardoaren mundura biltzeko aukera eskainiko diete bisitariei, eta horretarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

Sagar erakustazokarekin hasiko dira Sagarraren Festaren ekitaldiak. 09:30ean zabalduko dute, eta bertako sagarrak jarriko dituzte ikusgai eta salgai. Gainera, sagardoa egiteko materiala ere izango da.

10:30ean sagardoa nola egiten den erakutsiko dute. Sagardoa egiteko sagarrak gurdian eramango dituzte Gaztelu Zaharrera. Idiek tiratutako gurdia Abadia eremuko sagarrez beteta joango da.

10:15ean aterako da Beltzeniatik, eta Zarpai Bandak lagunduta kalejiran joango dira pilotalekuraino. Txalapartariak izango dituzte han zain. Eta ondoren hasiko da sagardoa egiteko erakustaldia.

Eskualdeko sagardoa

Sagar lehertzea ohitura zaharrei jarraituz egingo dute, Azkaingo Txopinondo sagardotegiko Dominik Ladagadecek emango ditu azalpenak. Igandean egindako sagar zukua 2012ko Bixintxo bestak arte ezingo da dastatu, upeleratu eta ordura arte jasoko baitute.

Hala ere, sagardoa dastatzeko aukerarik ez da faltako igandeko festan. Behe Bidasoan 2010ean egindako sagardoa dastatzeko aukera eskainiko dute hainbat sagardogilek. Gainera, goiz guztian

bertan egindako sagardoa eskainiko diete bisitarei.

11:30ean, berriz, Bidasoako sagardozaleen kofradiako bigarren biltzarra egingo dute. Eta jarraian, Hendaian Kantuzek abesteko gogoz daudenak elkartuko ditu.

Goiza bukatzeko sagardotegi bazkaria egingo dute, Josenri orkestrak animatuko du.

SAGARRAREN FESTA

Zer. Sagarren erakusketa, sagardo dastatzea, Hendaian Kantuz...

Non. Hendaian (Lapurdi).

Noiz. Igandean.

[Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#) |  |  |

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**

Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefona: 943 304 030 / Faxe: 943 590 172

berria@berria.info - www.berria.info

Lege Informazioa

